



Olentzeroren adierazpena: *“Aurten abenduaren 23an helduko naiz Bilbora, hiriarentzako opari erraldoi batekin”*

- **Pertsonaia magikoa arratsaldeko 18:00etan azalduko da Kale Nagusian, Foru Aldundiaren eraikinaren parean, eta ordu bete geroago iritsiko da Arriaga Antzokira.**
- **Ikazkin ospetsuak Arriaga Antzokian egingo du lo gau horretan eta bertan hartuko ditu Bilboko haurrak hurrengo egunean, abenduaren 24an, goizean zehar.**

Bilbao, 2008ko abenduaren 18a (Galtzagorri Press). Gabonak gertu daude, eta urtero bezala, Olentzero Bilbora etortzeaz dago, bertako haurren nahiak eta desirak jaso eta merezi dituzten opariak ekartzera. Lan gogorra baina atsegina da, eta berau prestatzeko hainbat galtzagorriren *-entrenatzaile pertsonalen-* laguntza izan du ikazkinak urte osoan zehar. Horrela, Olentzerok berak deitu ditu komunikabideak, Bilboko hiritarrei, eta bereziki gazteei, aurtengo etorreraren inguruan izango diren berrikuntza garrantzitsuak jakin arazteko.

Lehenengo berrikuntza ikazkinak Bilboko haurrei aurreratu dizkien oparien inguruko da. *“Egun hauetan zehar – esan du nagusian, barkatu, Olentzerok-, 20.000 postal banatu ditut Bilboko ikastetxeetan, 2 eta 8 urteko haurren artean. Gainera, nire galtzagorri nekazezinek 16.000 komiki banatu dituzte Bilboko etxeetan barrena, adin horietako gaztetxoekin etxeetan. Azkenik, bihar, abenduak 19, 50.000 ebakigarri banatuko ditut Deia eta El Correo egunkariaren laguntzarekin.”*

Bigarren berrikuntza eta nobedade handia Olentzerok Bilborentzako dakarren **opari ederra** da. *“Ziur nago Bilboko hiritarrek merezi izan dutela. Portatu dira. Egunero garbitzen dituzte hortzak, etxeak lanak egiten dituzte, nahiak nota onak ateratzen dituzte, adiskidetsuak eta abegitsuak dira bisitariekin, iraunkortasuna eta berdintasuna bezalako kontuetan egoki egiten dute aurrera, nahiz eta batzutan harrotasun puntu batekin aritzen badira ere. Ay, ez da hutsik gabeko pertsonarik...! Baina horrela jarrai dezazuen nahi dut. Bilbo eta bilbotarrak ondo portatzen jarraitzen baldin baduzue, beharbada beste opari bat ekar dezaket datorren urtean. Eta, argi ibili... badakizue Olentzero beti dagoela zelatan”* esan du ikazkin magikoak Galtzagorri Press-eri eskainitako adierazpenetan.

Bigarren nobedade horren eskutik datorkigu **hirugarren berrikuntza**. Izan ere, opariaren neurria dela-eta – handia-oso handia da-, Olentzerok etorrera aurreratu beharra izan du, eta egun bat lehenago iritsiko da Bilbora. *“Kalkuluak egiten aritu naiz eta, Bilbora asteartean iristen ez banaiz, denboraz larri ibiliko gara asteazkenean Bilboko auzo ezberdinetan izateko eta Euskal Herriko beste herri eta hirietara ere joateko”* esan du.



Horretarako, komunikazioaren profesionalei eskaera egiten die Olentzerok, aurten etorrera egun bat lehenago, abenduaren 23an, izango dela jakinarazi dezaten. Egun horretan, arratsaldeko seietan, Olentzero gurekin, Galtzagorriekin, agertuko da; eta bertan, Kale Nagusia, Foru Aldundiaren eraikinaren parean izango dira ere Lamia, Mari Domingi, eta Bilbora dakarten opari erraldoia, noski. Bertatik oparia Arriaga Antzokira arte jaitziko da, eta zapiak inguruan heltzea espero dute.

“Hiritarrendandik ahalik eta laguntzarik handiena behar dut; eta horregatik egiten diet dei haur eta gazteei, gurasoei, aiton-amonei eta Bilbotar guztiei orokorrean; nire ongi-etorri ekitaldira etor daitezten eta Foru Aldundiaren eta Arriaga Antzokiaren tartean itxaron dezaten. Horrela, zuon desio guztien indarrarekin, zuon laguntzarekin eta zuon gogoekin oparia Arriaga Antzokira eraman dezagun” esan dio Olentzerok Galtzagorri Press-i.

Arratsaldeko zazpi eta erdiak arte egongo da Olentzero Arriaga Plazan, bertan izango diren pertsonen eskainitako kanta tradizionalak entzuten eta bere lagun-taldearen garapena ikusten. Ordu horretan ikazkina Arriaga Antzokira sartuko da, bertan gaua pasatzeko, atsedean hartzeko eta den abenduaren 24rako prest egoteko. Euskal Telebistak etorrera emango du. Abenduaren 24an, egunez, Olentzerok Bilboko haurrak hartuko ditu Arriaga Antzoki barruan, **goizeko 11:30etik 14:00etara**. Haurren desio eta eskariak jasotzeaz gain, ikazkinak **2.500 yo-yo** eta **2.500 ziba** eskainiko die bera agurtzera gerturatzen diren haurrei. Olentzerorekin egoteko itxaroten arituko diren guzti horiekin gu izango da, Galtzagorriok, itxaron momentu horiek alaitzeko. Harrera bukatuta, munduan barrena egingo duen bidaiaria hasiko du Olentzerok.

OLENTZERO 2008

Bi eta zortzi urte bitarteko ikasleen artean **20.000 postalen** banaketa Bilboko ikastetxeetan
Bi eta zortzi urte bitarteko haurrak dituzten Bilboko etxeetan **16.000 komikiren** banaketa posta
arrunta bidez

Deia eta El Correo egunkarietan sartuta **50.000 ebakigarri**.

2.500 yo-yo eta 2.500 ziba abenduaren 24an Arriaga Antzokira gerturatzen diren haurren
arte banatzeko

OLENTZERORI ONGIETORRIA

Eguna: Asteartea, 2008ko abenduak 23

Hasiera: Kale Nagusia, Foru Aldundiaren eraikinaren parean, arratsaldeko seietan.

Ibilbidea: Kale Nagusia, Navarra Kalea, Arriaga Plaza.

Helmuga: Arriaga Plaza, arratsaldeko zazpian.

Ongietorriaren bukaera: Arriaga Plaza, arratsaldeko zazpi eta erdian. Ordura arte Olentzero Arriaga Antzokiaren kanpoaldean egongo da, hiritarrek eskainitako kanta tradizionalak entzuten eta bere lagun-taldearen garapena ikusten

OLENTZEROK BILBOKO NESKA MUTILAK HARTUKO DITU

Eguna: Asteazkena, 2008ko abenduak 24

Tokia: Arriaga Antzokiaren barrualdea

Ordua: 11:30etik 14:00etara. Kanpoaldean Galtzagorriok, itxaron momentu horiek alaituko dituzte.